

MAXIXATZEN

GLUKA



ITXARO IRAETA

**FESTARAKO HITZORDUA
ANDRE MARIREKIN**



**ondo pasau
andramaixek!**

www.azkoitia.eus f @



AZKOITIA
Udala

Loiola



- 1, 2 eta 3 logelatako etxebizitza argitsuak.

- Kalitate goreneko akaberak eta punta-puntako materialak, 50 urtetik gorako esperientzia duen talde baten bermearekin.

- Azkoitiko bihotzean etxebizitza paregabea lortzeko aukera zure eskura.

ONDO PASAU ANDRAMAXEK!

Sustatzailea/Eraikitzailea:



Saltzailea:





Bizitza bat festen bitartez

ANGEL MARI ARENAS

Andremari jaien lehendabiziko oroitzapenak txikitakoak ditut, 50. hamarkadakoak, hain zuzen ere. Urte haietan ez zen txupinazorik izaten; festen hasiera pregoilariarekin egiten zen, zaldiz, danborrez eta tronpetez lagunduta. Jarraian kalejira egiten zuten herrian barrena, eta nire aita zenak eta Kandido Beristan zenak parte hartzen zuten kalejira hartan musikari gisa.

Elizak eta elizkizunek beti izan dute indarra andremarietan, eta bitxikeria bat baino gehiago utzi izan dituzte horiek. Salbera, adibidez, beti gonbidatzen zuten Vallellanoko Kondea. Gero, demokraziaren garaian, diputatuak edo ministroak gonbidatzen zituzten, baina urte batean errektorea haserretu egin zen, eta ez zien haiei elizara sartzen utzi. Lehen, gainera, bi prozesio egiten ziren festetan; Andremari egunean herrigunekoa, eta San Roke egunean, berriz, Floreagatik hasitakoa, San Roke auzoa zelako hura.

Garai haietan ekitaldi erlijioso asko egiten ziren, eta meza-berria ere izaten zen urtero-urtero andremarietan, hau da, apaiz berrien ordenazioa. Festa egunetan, txistulariok apaiz berriaren etxera joaten ginen, eta familia osoa eramaten genuen elizara.

«Bereziak dira andremariak, urteetan kanpoan bizi diren familiak etortzen dira egun horietan Azkoitira, eta familien arteko elkartasuna erabatekoa izaten da. Hori da festen ezaugarri nagusietako bat»

Dantza eta musika ere garrantzitsuak izan dira beti Azkoitiko festetan. Andremarietan, adibidez, dantza lehiaketak egiteaz gain, udalbatzaren aurrekua iza-

ten dugu. Musika Bandak eta txistulariok kalean igarotzen ditugu festa egun guztiak; txupinazotik hasi, udal korporazioa, aurrekua, kontzertuak... Sasoi batean, udalak urtero orkestra bat ere ekartzen zuen, Tolosako Jai Alai, baina 1970. urtean erakundeak diru gutxi zuela eta, talde hura ez ekartzea erabaki zuen. Eduardo Olano zen Azkoitiko alkatea urte hartan, eta herritarrek protesta egin zuten haren etxe aurrean. Hurrengo egunean alkatea gugana etorri zen zerbait prestatu behar genuela esanez. Garaiko musikari batzuk bildu ginen, eta orkestra sortu genuen, egun desberdinetan emanaldiak eskaintzeko Azkoitiko herritarrei. Urte hartan plazako kioskoan pasatu nituen festetako ia egun guztiak!

Bereziak dira andremariak; herritar gehienek parte hartzen duten festak dira, urteetan kanpoan bizi diren familiak etortzen dira egun horietan Azkoitira eta familien arteko elkartasuna erabatekoa izaten da. Hori da festen ezaugarri nagusietako bat. Guk ere urtero egiten dugu familiako juntadizoa; ahal dugun gehienok biltzen gara, janari eta edari artean, ondo pasatzeko asmoz.

Gaur egungo festak oso desberdinak dira; ederrak izaten jarraitzen dute, ordea. Nik jaietan parte hartzen jarraitzen dut oraindik, txistulari bezala. Urduri igarotzen ditut aurreko egunak, emanaldiak ondo eskaintzea nahi izaten baitut. Gainera, adinean aurrera noa, eta horrek ere badu bere eragina... Baina gustura aritzen naiz, pozik herriari eta herritarrei musika eta nik egiten dakidana eskaintzen.

Hamaika ekintzatan parte hartu izan dut andremarietan: udal korporazioari laguntzen, dantza txapelketan, kontzertuak eskaintzen, alkatearen eta zinegotzien aurrekuaren hitzorduan... Zenbat udalbatza ezagutu ditudan urte hauetan guztietan! Eta ezagutzen jarraitzeko asmoa dut; izan ere, nire aita zenaren oroimenez darama txistulari taldeak Txalkor izena, eta zaila egiten zait jardun hori uztea.

Azkoitiarrei festak alai eta ondo pasatzeko deia egin nahi diet. Azkoitiko kaleetan ikusiko gara.

Ondo pasau andramaxek!





TXG
TXOMIN GORRI

Marka eta mota guztietako autoentzako kalitatezko zerbitzua eskaintzen dugu

ondo pasau andramaxek!


- Merkatuarekin batera etengabeko formakuntza eta berrikuntzak
- Bezeroen arretan gertuko tratua
- Zerbitzuan azkartasuna eta kalitatea
- Prezioen gardentasuna
- Mota guztietako autoak konpontzeko prestutasuna (klasikoak, kamionetak, autokarabanak, 4x4...)
- Aire girotua
- Kaxa automatikoaren mantenua










Juin Txiki Industrialdea, 16A · AZKOITIA · 655 52 12 57 · txgautoak@gmail.com  



«Txupinazoa
botatzeak sorpresa
eta ilusioa eragin
dizkigu»



Urolan zehar ibiltzen bazara, zure aukerarik onena gara!



Erosotasuna, segurtasuna eta eraginkortasuna
zure irteeretan, ibilaldietan, ospakizunetan...

**ONDO PASAU
ANDRAMAXEK!**

Ugarte Industrialdea, 54 · AZKOITIA · 943-85 11 59
info@laguipuzcoana.eus · www.laguipuzcoana.eus
f La Guipuzcoana · @LaGuipuzcoana




Aingeru
loradenda

ONDO PASAU ANDRAMAXEK!

Guardia Kalea 4, Azkoitia • Tel.: 943-08 37 54 - 688 81 33 46



Ainhoa
ILE APAINDEGIA

Guardia kalea • 943-85 08 48
722 227 323

ondo pasau andramaxek!



SARE ETA INFORMATIKA ZERBITZUAK

SAREAK, IRTEERAK ETA ORDENAGAILU, MUGIKOR ETA TABLET KONPOKETAK

ALDAKO

ondo pasau andramaxek!

Kale Nagusia, 46 • Azkoitia • 943-08 36 14 • 629 09 92 76
informatika@aldako.es



alberdi

ONDO PASAU ANDRAMAXEK!

ARANBARRI
drogeria

943-85 14 37

Kale Nagusia, 31 • Azkoitia

ondo pasau andramaxek!

Azkoitiko danborradak 75 urte bete ditu aurten, eta historia horren protagonistak dira Justino Sasieta (Azkoitia, 1929), Ana Etxaniz (Azkoitia, 1951) eta Xanti Artetxe (Azkoitia, 1961). Lehenbiziko danborradan parte hartu zuen Sasietak, eta Etxanizek eta Artetxek urte asko daramatzate zuzendari lanetan; oraindik ere jarraitzen dute zeregin horretan. Hirurek ondo ezagutzen dute, beraz, danborrada, eta lan asko egin dute festaren alde. Hori guztia kontuan hartuta erabaki du Azkoitiko Udalak hiru azkoitiarrak izatea abuztuaren 14an Andre Maria jaien txupinazoa botako duten pertsonak.

Aurtengo andremarietako txupinazoa botako duzue abuztuaren 14ko eguerdian. Nola hartu duzue albistea?

Xanti Artetxe: Sorpresa eta ilusioa, biak sentitu ditut. Nik, gainera, oso gogoko ditut Andre Maria festak, eta berebiziko ilusioa egin dit txupinazoa botatzeko albistea jasotzeak.

Ana Etxaniz: Niri ere gauza bera gertatzen zait. Sorpresa handia izan da.

Justino Sasieta: Pozik jaso nuen berria, eta abuztuaren 14an gustura joango naiz udaletxeko balkoira.

Azkoitiko danborradak 75 urte bete ditu, eta antolakuntzan izan duzuen rol esanguratsua nabarmendu du udalak urteurrenean. Zer garrantzi du horrek zuentzat?

A.E.: Aitortza gisa hartu dut nik. Gure kasuan, adibidez, emakumeen lehenbiziko taldea izan zen gurea. Duela 25 urte sortu genuen talde hori.

X.A.: Hala da, aitortza izan da niretzat ere txupinazoa botatzeko ardura guri eman izana.

J.S.: Gauza batek harritu nau ni: hasierako danborrada hartako bakarra naiz... Ez da izango zintzo ibilitakoa naizelako!

Nolako txupinazoa izatea nahiko zenukete?

X.A.: Dena ondo joan dadila; horixe nahiko nuke nik.

A.E.: Urte askotan izan gara plazan txupinazoa ikusten, eta besteetan bezalakoa izan dadila.

X.A.: Jende asko izaten da plazan momentu horretan, eta denek ondo pasatuko dutela espero dut. Denak pozik badira, gu ere pozik izango gara.

Nola hasi zineten danborradan parte hartzen?

X.A.: Gogoan dut lehen aldiz gure taldea zuzendu nuenekoa: *Bai Euskarari* kanpaina izan zen orduan, hau da, 1978. urtean. 17 urte nituen orduan, eta 40 urte inguruz aritu naiz zuzendari lanetan. Aurtengoa izango dut, ordea, azken urtea danborradan

«Oso gogoko ditut andremariak, eta berebiziko ilusioa egin dit txupinazoa botatzeko albistea jasotzeak»

Xanti Artetxe

parte hartzen; neure buruari esana nion lana amaitutakoan utziko niola danborradako zuzendari izateari, eta aurten, azaroan, erretiroa hartzen dudanez, azken urtea izango dut zuzendari gisa. Erabakita dut.

A.E.: Bai? Harra sartuko zaizu gero, eta beharbada ez duzu utziko...

X.A.: Ez, ez. Azken urtea izango da. Alabari ere esan diot dagoneko berak hartu nahi al duen erreleboa. Oso seguru nago azken urtea izango dela.

A.E.: Duela urte asko nahiko danborrada eskasa zen, jende gutxik parte hartzen zuen, eta pilotarietatik talde bat osatzea proposatu ziguten. Bi kuadrillatako kideak batu ginen, eta par-

«Emakumeen lehenbiziko taldea izan zen gurea; duela 25 urte sortu genuen talde hori»

Ana Etxaniz

te hartzea erabaki genuen. Hamabost bat lagun izango ginen, eta danborra jotzen hasi ginen. Duela 25 urte inguru izan zen hori. Handik urte batzuetara, lau zapabost urtera, zuzendari izateko proposamena egin zidaten, eta oso ausarta naizenez, baiezkoa eman nuen. Harrezkerro, pilotarien taldeko zuzendaria naiz.

Zure kasuan, Justino, Azkoiti-



tian egin zen lehenbiziko danborradan parte hartu zenuen. Nola izan zen prozesua?

J.S.: Eusebio Berasategi zenak ekarri zuen danborrada Azkoitia. Bera lasartearra [Gipuzkoa] zen, eta han egiten zuten danborrada Azkoitian egitea nahi zuen. Hala, kuadrilla desberdinetako kideoi danborradan parte hartzeko eskatu zigun. Ni animatu egin nintzen eta izena eman nuen; kuadrillatik bakarra izan nintzen. Beste kuadrilletako batzuk ere izena eman zuten: Martin Peru-k, Hilario Alperra-k... Entseguak Azoka Plazako goiko solairuan egiten genituen, eta Eusebio bera izan zen danborra jotzen irakatsi ziguna. Musika Bandarekin ere probak egin genituen. Egun eta ordu asko eman genituen entsetzen. Sukaldari jantziarekin atera ginen.

Eta zer moduz joan zen lehen danborrada? Zer moduzko harrera izan zuen azkoitiarren artean?

J.S.: Oso ondo atera zen; herritar ugari bildu zen kalean festa hura ikusteko. Ez zen gaizki joango, ordutik urtero egin baita danbor festa. Ideia ona izan zen, eta danborrada egin eta egun batzuetara, omenaldia egin genion Berasategiri. Udaletxean izan zen omenaldia, eta bospa-sei lagun izan ginen bertan:

Martin Peru, nire anaia, Hilario Alperra, Manolo eta ni.

Zenbat urtez parte hartu zenuen danborradan?

J.S.: Urte hartan bakarrik parte hartu nuen, ez nintzen gehiago irten. Urtez urte mutil berriei, aurrez atera gabekoei, ematen zitzairen aukera bertan parte hartzeko. Guk hasiera eman genion danborradari, eta gero, jarraipena, besteen esku utzi genuen.

Asko aldatu al da Azkoitiko danborrada?

A.E.: Asko!

X.A.: Gogoan dut udaleko Kultura saileko Jexux Arrizabalaga Tata-k zera esaten zidala: «Xanti, danborrada egin behar diagu». Jenderik ez zegoela danborrada osatzeko esaten nion, baina beti erantzuten zidan: «Bilatuko dizkiagu pertsonak». Baina, gero, 40 pertsona inguru izaten ginen danborradan, oso gutxi.

A.E.: Garai eta urte txarrak bizi izan zituen danborradak, baina, gaur egun, merezi du bertan parte hartzeak. Danborrada serioa da. Ederra da!

J.S.: Azpeitiko herria geroago hasi zen danborrada egiten, baina oso ondo antolatuta du, eta danborrada ederra egiten dute han.

X.A.: Urte zailak igaro ditu Azkoitiko danborradak. Hasierako urteetan partaideak bilatzen

pasatzen genituen egunak; gaur egun, berriz, 500 pertsona inguru izaten gara. Alde ederra egin du.

A.E.: Gatazka txiki bat izan zen danborrada andremariatatik sanandresetara pasatzea erabaki zenean. Herritar batzuei ez zitzairen gustatu aldaketa hori egitea, baina denborak erakutsi du erabaki ona izan zela.

«Oso ondo atera zen lehen danborrada; herritar ugari bildu zen kalean festa hura ikusteko»

Justino Sasieta

J.S.: Jendea oporretara joaten zen urte haietan andremarietako egunetan, eta hori zen danborrada ondo ez joateko arrazoi nagusia.

A.E.: Bai, data bereziak dira abuztukoak. Baina egoerari itzulita ematea lortu da datuak aldatu denetik.

J.S.: Nork antolatzen du danborrada gaur egun? Udalak edo talde bat dago atzetik?

A.E.: Batzorde bat dago danborrada antolatzeko. Denen artean prestatzen dute guztia.

J.S.: Oso ondo, horrela behar du izan.

Beloki

ONDO PASAU ANDRAMAXEK!

www.belokiharategia.com • Belokijuancruz@hotmail.com

Egurki

eraikuntzak

ONDO PASAU ANDRAMAXEK!



ONDO PASAU ANDRAMAXEK!

KALE NAGUSIA, 95 • 943-85 28 88



ETXE AITZ

Kale Nagusia, 73
943-85 17 13
AZKOITIA

ondo pasau
andramaxek!



GONZALO ESCARTIN, S.A.

Instalazio elektrikoak eta telekomunikazioak

Ondo pasau andramaxek!

Juin Txiki industrialdea 6. zenbakia
20720 Azkoitia
Tel. 943-85 24 56

ERLOJUTEGIA *Gonzalo* BITXITEGIA**ONDO PASAU ANDRAMAXEKI!**

Kale Nagusia, 11 · 20720 Azkoitia · 943-85 24 93

*graphic's**graphic's*
graphic's

www.graphicsazkoitia.com

*Ondo Pasau
Andramaxek!!***INTZA**

LUBRICATION SYSTEMS

**ONDO PASAU
ANDRAMAXEKI**943-85 25 59
Ibai-Ondo Kalea, 24
20720 Azkoitia

ARRAINDEGIA

ondo pasau andramaxek!**ONDO PASAU ANDRAMAXEKI!**

KALE NAGUSIA, 55 · 943-85 13 19



Salbearen magiak beteko du parrokia

Urtero jendetza elkartzen da Andre Maria bezperako Salbean. Azkoitian abesten den bertsioa berezia da, beste inon kantatzen ez dena.

Abuztuaren 14ko eguerdian jaurtiko dute jaiei hasiera emango dien suzeria udaletxeko balkoitik, eta orduan egingo dute eztanda andremariek Azkoitian. Bost egunetan festa giroaz gozatzeko aukera izango dute azkoitiarrek, eta adin eta gustu desberdinetara egokitutako ekintzak izango dira egun horietan. Bada, baina, festetan ohikoa den hitzordu berezi bat: Salbea. Herritarrengan «emozio handia» eragiten duen ekintza da Salbea, herritar ugari batzen di-

tuena, eta aurten ere, ziur aski, leporaino beteko da Andre Mariaren Jasokundeko parrokia. Hori da Salbearen magia.

Baina zer da zehazki Salbea? Errezu hitzordu bat da, otoitz bat, Ama Birjinari egiten zaion agurra. «Azkoitiko Salbea parrokiaren egingo da, eta han, Ignacio Busca Sagastizabalen *Salbea* abesteaz gain, Aita Nemesio Otañoren *Ave Maria* eta *Ama Birjinaren Eder-tasuna* kanta herrikoia kantatzen dira», esan du Carlos Muñoz Parrokiako Abesbatzaren zuzendaria eta Salbearen arduradunak.

Euskal Herriko elizetan eta parrokiatan abesten diren *Salbea*

ren bertsio ugari daude, baina Azkoitikoak badu berezitasun bat, Muñozek azaldu duenez: «*Salbearen* bertsio asko daude. Azkoitian abesten dena, baina, Busca Sagastizabalen bertsioa da, eta nik dakidanez, Azkoitian bakarrik kantatzen da hori. Abesteko oso konplexua da, zazpi ahots dituelako, eta horixe da bertsio horren berezitasun nagusia».

Azkoitian abesten denak dituen zailtasunak kontuan hartuta, uztailean ekin zieten entseguei abesbatzako kideek, eta astean gutxienez saio bat egin dute orduz geroztik. Gainera, Parrokiako Abesbatzako kideek parte har-



tzen badute ere, herritarrei irekia izaten da deialdia, eta horrenbestez, nahi duten herritar guztiek parte har dezakete emanaldian: «Nahi duten herritarrek Salbea abestuz parte har dezakete hitzorduan. Dena den, garrantzitsua da herritar horiek aurrez abesbatzetan ibilitakoak izatea».

Lan askoko egunak

Iazko estreinaldiaren ostean, abesbatzaren zuzendari Muñozen bigarrena izango da aurtengo Salbea. Hitzordu horren ardura Parrokiako Abesbatzaren zuzendariak izan ohi du, eta Muñoz iaztik da abesbatza horren zuzenda-

ria. Udal Musika Bandaren zuzendaria ere bada azkoitiarra, eta hurrengo festetako egunetan lan «asko» izango duela adierazi du. Haren hitzetan, lehen hiru egun gogor dituzte aurretik; txupinazoaren aurretik hasiko dira herria alaitzen eta San Roke eguneko eguerdira arte ariko dira horretan. «Andre Maria Egunean, adibidez, ekitaldi askotan egon be-

«Oso nekatuta bukatu arren, ederra izan zen iazko esperientzia; jende ugari izaten da ekitaldi guztiak ikusten»

harko dugu. Lehen hiru egunetan, berriz, parrokiari ekitaldiak izango dira, eta horietan guztietan egon beharko dut nik. Hori bai, San Roke eguneko eguerdiko kontzertua amaituta, oporrak hartuko ditugu bandako kideok», azaldu du pozik.

Lan karga hori izateak, baina, merezi duela esan du Muñozek: «Iaz egin nituen lehen aldiz bandako eta parrokiako lanak batera, eta oso nekatuta bukatu arren, ederra izan zen; izan ere, jende ugari izaten da ekitaldi guztiak ikusten, eta ekialdiok herritarren gustukoak direnez, gustura egingen dut lana».

LAZTANE
ESTETIKA ZENTROA

ONDO PASAU ANDRAMAXEK!

**MAPFRE**
AZKOITIA

JOAQUIN eta
IGOR ISUSQUIZA

ONDO PASAU ANDRAMAXEK!

Julio Urkijo, 20 - 20720 AZKOITIA • 943-85 14 61
isusqui@mapfre.com

**nho**

ainhoa etxaniz estudioa
barneen diseinatzailea

julio urkijo, 6 • AZKOITIA
943-85 09 73 • 669 92 24 58
nho@nhoestudio.com
www.nhoestudio.com

Ondo pasau andramaxek!

**LA BERRI**
Pub

Kale Nagusia, 27 • AZKOITIA • 943 85 72 34

ondo pasau andramaxek!

orbela
JATETXEA

KOXKA
TABERNA



Aita Madinabeitia Plaza
699 29 23 62

Kale Nagusia, 92
943-85 11 96

ondo pasau andramaxek!



EROSKI

zurekin

kalitate onena
prezio onenean

ondo pasau andramaxek!



“Asmoa ez da sanandresetako danborrada bera egitea, zerbait xumeagoa, berezia eta polita baizik”

1948ko abuztuaren 14an egin zen lehenbizikoz Azkoitiko helduen danborrada. Aurten, beraz, 75 urte beteko ditu, eta gaur egun dataz aldatuta dagoen arren, ekintza ugari izango dira urtemuga ospatzeko. Lehenbiziko hitzordua Andre Maria bezperan egingo da, hasierako urte haietako danborrada berreskuratuko baitute. Urteurreneko ospakizunak antolatzeaz azpibatzorde bat osatu dute Joxan Mendizabalek, Oihana Sudupek, Marta Arregik, Jennifer Iriondok, Ariane Etxanizek eta Juli San Vicentek. MAXIXATZEN talde horretako boluntario batzuekin bildu da urteurrenaren berri izateko.

Nolatan sortu da danborrada egiteko aukera?

Marta Arregi: Azkoitiko helduen danborradak 75 urte betetzen ditu aurten, eta andremarietan danborrada egitea erabaki da, lehen Andre Maria bezperan egiten zela.

Joxan Mendizabal: 1948. urtean izan zen lehenbiziko danborrada, eta 30 barrika jotzaile eta 30 danbor jotzaile atera ziren; 60 bat lagunek parte hartu zuten danborrada hartan. Andremarietako azken danborrada, berriz, 1998. urtean izan zen, 50. urteurrenean. Gero, 1999an, Azkoitiaren 675. urteurrena aitza-kiatzat hartuta, Urrategiko festen bezperan egin zen danborrada, eta 2000. urtean hasi ziren San Andres festen barruan ospatzen. Ordudunik izugarritzko indarra hartu du danborradak.

Urteurrenaren harira egingo da, beraz, danborrada andremarietan. Nola egin da antolaketa?

Oihana Sudupe: Helduen danborradaren balorazio bilera egin zen martxoan, eta han parte hartu zuten taldeetako zuzendariak eta arduradunak. Bilera hartan atera zen urteurrenaren

gaia, eta zerbait berezia egin behar zela esan zen. Jendea prest zegoela ikusirik, azpibatzordea eratzea erabaki zen, urtemugako ekitaldien ardura hartzeko, beti ere, Azkoitiko Udalaren laguntzarekin.

Nolako danborrada izango da aurtengo andremarietan egingo dena?

J.M.: Kasualitatez, orain dela 75 urte egin zen haren antzekoa izango da, 60 pertsona inguruk parte hartuko dute: 30 barrikak eta 30 danborrek. Bandarekin irtengo da danborrada, baina txaranga formatua izango du.

M.A.: Bi taldetan banatuta egongo dira parte hartzaileak; alde batetik, barrikak; eta bestetik, danborrak. Zuzendariak, berriz, Joxan eta biok izango gara, eta lau banderadun ere izango dira, kantinerarik gabe.

J.M.: Jendeak oso ondo erantzun du. Danborradan parte hartzen duten kide denei nahi genien mezua helarazi, eta Danborradako Batzordera bidali genuen mezua, hango kideek talde bakoitzera helaraz zezaten. Talde guztietako kideek parte hartzea nahi genuen.

M.A.: Asmoa ez da sanandrese-

tako danborrada bera egitea, zerbait xumeagoa, berezia eta polita baizik.

O.S.: Arropen kontua berezia izan da; izan ere, hasieran talde bakoitzaren arropak erabiltzea zen asmoa, baina arropa batzuk oso negukoak dira, udarako oso beroak. Hala, denak galtza bakoekin eta kamiseta eta zapa-tila zuriekin aterako gara. Danbor eta barrika jotzaileek txapel beltzak ere jantziko dituzte, zuzendariak gorriak, eta banderadunak, aldiz, berdeak. Denok zapi gorri bereziak eramango ditugu soinean.

Zeintzuk izango dira abuztuaren 14koak betiko danborradarekin alderatuta izango dituen antzekotasunak eta desberdintasunak?

M.A.: Musika berbera izango da, eta ibilbideari dagokionez, danborrada frontoian hasi eta Balda plazara joango da. Handik bueltan, berriro frontoira joango da taldea, eta bidean geldialdiak egingo ditu.

J.M.: Betiko danborradan 11 taldek parte hartzen dute, hau da, 500 pertsona inguruk, eta andremarietako ekitaldi zehatz bat besterik ez da izango, ohiko

danborradari keinu bat egiteko antolatutako ekitaldia.

M.A.: 20:30 inguruan hasiko da danborrada, Salbearen ondoren, eta ordubetez, danborrak eta barrikak entzuteko aukera izango da Azkoitiko kaleetan. Danborrada ikustean, herritarrek gogora dezatela duela urte batzuk danborrada egiten zela andremarietan!

Entseguak ere antolatu dituzue, ezta?

M.A.: Bi entsegu egingo ditugu: bata, larunbatean, eta bestea, astelehenean, egunean bertan. Biak 10:00etan izango dira Gurea pilotalekuan. Danborradan irteten den jendea izango da bi saio horietan, eta bi entseguekin nahikoa izango dela iruditzen zaigu. Gainera, abuztua izanda, garai txarra da entseguak egiteko.

Atzera begira jarrita egingo den danborrada horrek izango al du hasierako urte haiekiko beste keinurik?

J.M.: Bai, urte luzez danborrada antolatzen egindako lana gorai-patuko zaie Umore Ona eta Beti Poz elkarteko kideei. Gainera, berezia izango da aurtengo txupinazoa, udalak hasierako dan-

borradan parte hartze esanguratsua izan zuten herritarrei eskaini dielako suzuria botatzea.

Danborradaren egunean ospakizun pribaturik izango al duzue?

M.A.: Gure aurreikuspenen arabera, 22:00 aldera bukatuko dugu danborrada. Ondorioz, danborrada amaitutakoan, parte hartzaile guztientzat mokadua izango da Gurea pilotalekuan.

Urteurrenaren harira ekin-tza gehiago izango direla esan duzue. Zerbait aurreraterik ba al duzue?

M.A.: Gauza gutxi dugu aurreratzeko, baina esan dezakegu ia ekintza guztiak azaroan izango direla, betiko danborradarekin lotuta.

J.M.: Danborradako Batzorderekin bilera egin genuen uztailen urteurreneko proposamena aurkezteko, eta denen adostasunarekin osatu ditugu ekintzak. Aurreratu ditzakegun gauzen artean badira batzuk: sare sozial bereziak egin ditugu herritarrekin informazio guztia elkarbanatzeko, Maite Galanek logoa egin dio urteurrenari, logo horrekin zapiak egin ditugu...

Miele

ONDO PASAU ANDRAMAXEK!

Banatzale ofiziala

MILAR LARRAMENDI
Etxetresna elektrikoak

Julio Urkijo Hiribidea, 16
20720 Azkoitia - Gipuzkoa
943 851 897

* Informazio gehiago miele.es/20años hobidatan

Cooking & Chef
SUKALDE GUNEAK



Plaza bete kuadrilla



ALBERDI
INMOBILIARIA

943 16 98 78
info@alberdi-inmobiliaria.com

www.alberdi-inmobiliaria.com
Trenbidearen Zumardia, 3
20720 AZKOITIA

Ondo pasau Andramaxek!!

943 85 25 14
info@alberdi-asesoria.com

www.alberdi-asesoria.com
Trenbidearen Zumardia, 3
20720 AZKOITIA

ALBERDI
ASESORIA

KOXKI
eraikuntzak - construcciones

Auzmendi bidea, 58 - AZKOITIA

koxki@koxkieraikuntzak.com

640 39 46 36



**ERA GUZTIETAKO
ERAIKUNTZAK ETA
ERABERRITZEAK**

Ondo pasau Andramaxek!



Ba ote mahaiaren bueltan eseri eta jan-edan ean egotea baino euskal girokoagoa den ohitura-rik? Ospakizuna, festa edota hitzordua edozein izanik ere, mahai baten inguruan amaitu ohi dira, eta herrietako jaiak ez dira gutxiagorako. Azkoitiarrak ondo dakitez zer den hori, abuztuaren 18 bakoitzean erakusten duten bezala. Herritarrek aurten ere beteko dute plaza herri bazkarirako, eta adin eta gustu anitzetako herritarrek izango dira bertan.

16 urteko herritarren kuadrillak izango dira lehen aldiz bazkarian, baita urte luzez hitzordura hutsik egin ez duten herritarrek osatutakoak ere. Denek dute lekua Azkoitiko plazan, eta horie-

tako kuadrilla batzuekin hitz egin du MAXIXATZENek.

Txanpaña lokaleko kideak 16 urterekin hasi ziren herri bazkari-ira joaten, adin horretara iritsi zirenean, «lehenago tranpa eginda joan ez baginen behintzat...», diote txantxetan. Ordutik, urtero-urtero izan dira abuztuaren 18ko bazkarian, hutsik egin gabe, eta halaxe jarraitzeko asmoa dutela adierazi dute. Izan ere, otorduaren bueltan sortzen den giroa eta adin desberdinetako herritarrek elkartzea gustuko dituzte: «Azkoitiarrak elkartzen gara bazkarian, denok batera bazkaltzen dugu eta izugarrizko giroa sortzen da plazan; festa giroa izaten da nagusi. Hori bai, azken urteetan jendeak gero eta gutxiago irauten du mahaietan eserita... Baina, tira, polita izaten da!».





Aurten ere giro eder horretaz gozatzeko aukera izango dute Txanpaña kuadrillakoez, beren alkandora eta guzti: «Txikitari serigrafiatutako kamisetak janzten hasi ginen. Izan genuen geuk eskuz egindako kamisetak janzten genituen beste garai bat ere, eta azken urteetan aurkitzen ditugun alkandora zatarrak erosten ditugu», adierazi dute barre artean.

Seme-alabekin hasi eta...

Lukas Olaizola eta Eli Larrañaga lagunak seme-alaben aitzakian hasi ziren duela hamar urte herri bazkarira joaten. «Askotan gertatzen den bezala, umeen lagun gurasoak elkartu eta bazkarira joatera animatu ginen. Umeak hazi egin dira dagoeneko, eta bazkarira gurekin joateari utzi diote,

baina guk jarraitu egiten dugu», esan dute umorez.

Ohitarari jarraituz, lagun kuadrilla osoa alkandora berdinarekin biltzen da andremariaren azken eguneko bazkarian: «Behin herri bazkarira joango ginela erabaki genuenean, alkandoraren ohitura geure egitea ere adostu genuen. Lehen urte hartarako erosi egin genuen, eta harekin jarraitzen dugu oraindik ere».

Lagun kuadrilla eguerdia baino lehen elkartzen da, soziedadean, eta hamaiketako «ederra» egiten dute denek elkarrekin: hirugiharra, txorizoa... jaten dituzte. «Eguerdarako plazara joaten gara, eta ondoren, poteo pixka bat egiten dugu. Bazkaldu aurretik sagardo botilak eskuratzen ditugu, eta plazara joaten gara, bazkaltzera. Egun polita izaten da

festetako azkena, eta giro ederra sortzen da».

Maitane Alberdik eta Ihintza Arrietak ere herri bazkarian sortzen den giroa nabarmendu dute. Haien arabera, giro hori izaten den urte guztiko data bakarra izan ohi da: «Egun horretan sortzen den giroa oso berezia da. Ez da ohikoa herri guztia ekitaldi berean elkartzea, eta bazkari hori horrexek egiten du berezi, adin guztietako jendea elkartzeak».

Alberdik eta Arrietak ez dute gogoan noiz hasi ziren herri bazkarira joaten, «zaila da gogoratzea, urte asko pasatu baitira» haien arabera. Dena den, aurrenekoz, adinez posible izan zutenean joango zirela uste dute. Orditik igaro diren hogeitau urte inguru horietan ez dute ia inoiz hutsik egin, izena emateko berandu ibili

 **ORMOLA**
moulding solutions

ondo pasau andramaxek!

www.ormola.com
ormola@ormola.com
943-85 13 00

Basarte area aldea 5 zbk, Azpeitia

**SANTIKUA**
BELARDENDA

ONDO PASAU ANDRAMAXEK!

KALE NAGUSIA, 28
943-85 13 40

**Ita kun**

ondo pasau andramaxek!

943-08 30 32 • Kale Nagusia 81 - AZKOITIA

**urrategi**
ETXEGINTZA S.L.

Bizkargi kalea, 3 beheka • Azkoitia
943-85 07 09 • urrategi@urrategi.com

ONDO PASAU ANDRAMAXEK!

**zurt**
taberna

ondo pasau andramaxek!

KALE NAGUSIA, 68 - AZKOITIA • 943-85 12 75

Balentsiaga

balentsiaga.eus

ondo pasau
andramaxek!

NEKAZALTURISMOA



erregistro zenbakia:
KSS00186



ondo pasau andramaxek!

Kale Nagusia, 41 • 943-10 52 62



ondo pasau
andramaxek!

makibar

Altzibar Etorbidea, 17
943-53 37 52

noah

ondo pasau Andramaxek!

Guardia Kalea 7

www.noahazkoitia.com

SAREEN MUNTAIA

KONPONKETAK

TPV/FAKTURAZIO SOFTWAREA

INFORMATIKA EKIPOEN SALMENTA

SEGURTASUN ETA MANTENU
ZERBITZUAK

etk
INFORMATIKA ZERBITZUAK

KALE NAGUSIA 88 • AZKOITIA • 943 02 64 28

www.etkinformatika.com • etk@informatika.com



XVI • Herri bazkaria

MAXIXATZEN GUKA

Osteguna, 2023ko abuztuaren 10a



izan ziren urteren batean kenduta: «Plazak mugatu zituzten lehen urtean, gure kuadrilla berandu ibili zen izena ematerakoan, eta ezin izan genuen bazkarira joan. Gainontzean, kuadrillen otordura urtero joan izan garena esango nuke».

Urtero-urtero, Azkoitiko plazan bazkaltzen dute abuztuaren 18a iristen den aldiro, baina urtero-urtero ez dute taldeko alkandora jantzi. Kontu horri lotuta, kuadrillan liskar txikiak izaten dituztela onartu dute: «Urteroko eztabaida izan ohi da alkandora janztearena, eta ondorioz, urte batzuetan jantzi izan dugu, baina beste urte batzuetan ez... Azken urteetan ohitura mantentzen saiatzen ari gara, eta aurten ere jantziko dugu. Gainera, inoiz ez dugu alkandora bera errepikatu;

aurtengoa izango da errepikatu-dugun lehen aldia», aurreratu dute Alberdik eta Arrietak.

Gazteenak eta helduenak

Bazkaritara joango den lehenbiziko urtea izango du aurten, berriz, Bateko Urrea deritzon lagun taldeak. Azkoitiko Udalak izena emateko eskatzen duen 16 urteko muga gainditzeko zain egon dira kuadrillako kideak, eta aurten, adin horretara iritsita, plazako bazkarian izango dira. «Ohitura eta tradizio handia da Azkoitiko herri bazkaria», eta bertan sortzen den giroa zer den bertatik bertara nahi dute probatzea. «Aurreko urteetan, kalera irteten ginenean, helduagoak ikusten genituen plazan bazkaltzen, eta guk beste nonbaitera joan behar izaten genuen. Bazkari horretan

egoteko gogoa beti izan dugu, batak bat, iaz. Izan ere, aurreko urteetan, COVID-19aren ondorioz, ez zen festarik izan, baina iaz, dagoeneko parranda egin genezakeen eta beste urteetan baino gogorra egin zitzaigun bazkarira ez joatea».

Gogo horren adierazle da honako datu hau: kuadrillan, guztira, hogeitahiru lagun dira, eta hemeretzi izango dira plazan bazkaltzen. «Eta oporretan egongo delako egingo du huts kuadrillako lagun horrek».

Alkandora prest dute dagoeneko, azken urteetako berbera erabiltzen jarraituko dutela azaldu baitute: «Abuztuaren 18an jantziko dugun alkandora polita eta bizia izan zedin nahi genuen, eta kuadrillako kideon artean bozketan egin genuen zein erosi erabaki-



tzeko. Bozketa bidez erabaki genuen, beraz, dagoeneko urte batzuk dituen alkandora berriz erabiltzea. Egia esan, ez dugu asmorik aldatzeko, gustura gaude daukagunarekin», jakinarazi dute gazteek.

Bazkarian izango dira herriko gazteak eta helduak. Belaunaldi desberdinen plaza bilakatuko da Azkoitiko hilaren 18an, Kuadrillen Egunean. Hain zuzen ere, Bateko Urrea lagun taldea izango da bazkariko gazteena, eta helduenak, edo ia helduenak behintzat, Mari Pura Aranbarri eta bere lagunak izango dira; 70 eta 80 urte bitartean dituzte horiek, eta hutsik egin gabe, urtero legez, aurren ere herri bazkarian izango dira.

Urte asko daramatzate Aranbarri eta lagunak abuztuaren

18ko bazkarira joaten. Kuadrilla horretako kideak Azkoitiko festen inguruan lan egindakoak dira, eta ondorioz, ohitura bihurtuta dute urteroko plazako zita. «Udalan lan egindakoa naiz ni, baita lagun bat ere, eta Festen Sailean lan txiki asko egindakoa. Lagun batzuk hasi ziren bazkaritara joaten, eta urteen poderioz, kuadrilla ederra sortu dugu bazkariaren bueltan».

Aranbarri eta lagunak «oso azkoitiarrak» direla onartu dute, eta herri bazkaria «barruan sentitzen» dutela gaineratu. Gainera, ez dira geldirik egotekoak. Horren erakusle da beste hainbat saltsatan ere parte hartzen dutela. Izan ere, besteak beste, jaietan zabalik izaten den Caritasen tonbolaren antolakuntzaz beraiek arduratzen dira. «Normalean, gai-

nera, Kuadrillen Eguneko eguerdian ixten dugu tonbola, eta ospakizun gisa hartzen dugu ondorengo herri bazkaria. Askok gustatzen zaigu Azkoitian antolatzen eta egiten diren ekintzetan parte hartzea; ahal dugun guztietan edo gehienetan parte hartzen saiatzen gara, baina adinean aurrera goaz, eta horrek zenbait ekintzatan parte hartzea mugatzen digu. Dena den, ahal dugun guztira iristen saiatzen gara oraindik ere».

Herri bazkaria da parte hartzen duten ekintzetako bat, eta aurren ere, plazan izango dira, betiko lekuan: «Hamar lagun inguru elkartuko gara, eta betiko lekuan izango gara. Izan ere, urtez urte, Portaleburuko arkupeetan jartzen gaituzte gu. Oso ondo pasatzen dugu».

— ONDO PASAU ANDRAMAIXEK! —

FK

INAZIO IRIARTE, 1 • 943 85 20 52 • FK@FKGRAF.COM

Ortozik
Podologia
Posturologia
IONE AGIRREGOMEZKORTA

ondo pasau andramaxek!

943 85 72 67

688 77 52 06 • Trenbidearen Zumardia, 21 • 20720 Azkoitia

herriren
sekotiko idendak

ONDO PASAU ANDRAMAXEK!

TOPATU BEHAR DUZUNA
Geure merkataritza eta ostalaritza

GIDA

WWW.MAXIXATZEN.EUS/GIDA

GUKA

**Hondartzaz eta igerilekuaz
gozatzeko**

**UDAKO
GUKA
PRODUKTUAK**

Nahi al dituzu?



Informazio guztia: www.maxixatzen.eus/denda/



Filmzaleen izar azpiko gaua

Film Laburren Lehiaketak XI. edizioa beteko du, eta astearte gauean plazara gerturatzen direnek zortzi lan ikusteko aukera izango dute. Gehienez, hamabi minutuko iraupena duten lanak izango dira ikusgai, euskarazkoak, originalak eta inon saritu gabekoak. *Maxixatzen* da aurtengo lehiaketarako hautatu duten gaia.



ONDO PASAU ANDRAMAXEK!

bpd
BEATRIZ POZO
DEKORAZIOA

Aingeru Kalea 5 - 20720 Azkoitia
943-54 08 86-669 41 40 25
deko@beatrizpozo.com



Hautz eta Koldarrak taldeek parte hartuko dute aurtengo lehiaketan; ez, ordea, Txintxarri lokalak

Udako zinema emanaldi ekoposusainan izan ohi dute: udako egun luze eta beroak, pipa-hotsa, izarren azpiko gau freskoak... Eta Azkoitiko plazak sentipen horiek guztiak sortzen dizkie azkoitiarrei abuztuaren 15an. Gauaren iluntasunean, izarrak agerian direla, pantaila handi bat eta zortzi film labur. Aire libreko udako zinema saioen ohitura zaharrak Azkoitira itzultzen dira gau batez, herriko plaza go-raino betez.

Aurtengoa Azkoitiko Film La-

burren Lehiaketaren XI. edizioa izango da, eta Andre Maria eguneko gauean plazara gerturatzen diren herritarrek zortzi lan ikusteko aukera izango dute; gehienez hamabi minutuko iraupena duten lanak izango dira, euskaraz eginak, originalak eta inon saritu gabekoak. *Maxixatzen* da aurtengo lehiaketarako hautatu duten gaia, eta Kultura Saileko ordezkariak adierazi dutenez, «bi ikuspegi posible» ditu gaiak: «*Maxixatzen* elkartea edo aldizkaria ala *maxixatzen* hitzaren esanahia».

Aurtengo parte hartzaileen artean da Hautz lokala. Kuadrilla horretako kideek 2019. urtetik

parte hartzen dute Andre Maria jaietako Film Laburren Lehiaketan, eta «kasualitatez» hasi baziren ere, «gustukoa» zaien zerbait dela onartu dute. Urtez urte, gainera, ikasten ari dira Hautz lokaleko kideak: «Hobeto antolatzen gara urtetik urtera. Gaia aurkezten dutenean, ideiak biltzen ditugu, eta gero, bi lagun artean pentsatzen dugu ideia garapena eta gidoia. Horren ondoren, talde osoari erakusten diogu proposamena, ados dauden edo ideia gehiago dauden jakiteko. Denon artean borobiltzen dugu ideia, eta grabaketarekin amaitzen dugu prozesua».



**ONDO PASAU
ANDRAMAXEK!**

Jandonianiz Kalea 7-Azkoitia

943-85 12 35

641 288 401

@geretafarmazia



Aurtengo lanaren grabaketa uztailean bukatu zuten, baina ez dute ezer aurreratu nahi izan. «Hasieran gai oso itxia zela pentsatu genuen, baina egia esan, aukera asko ematen dituela ohartu gara; hedabidea, elkarteak, hitzaren esanahia... Arlo jakin batetik heldu diogu gaiari, eta egia esan, oso gustura gelditu gara egindakoarekin. Azkoitiarrek hilaren 15ean ikusi ahalko dute; ea haien gustukoa ere baden».

Abuztuaren 15eko gauean azkoitiarrek faltan sumatuko dute Txintxarri lokala. Izan ere, orain arteko ia edizio guztietan parte hartu ondoren, aurten ez dute la-

nik aurkeztu. Parte hartu soilik ez, Txintxarri lokaleko kideek urte askotan irabazi izan dute lehiaketa. Hala ere, taldeko kideen asmo nagusia ondo pasatzea izan da beti: «Oso ondo pasatu izan dugu beti bideoak grabatzekoan. Gero jendeari gustatu izanak poza ematen du, eta, era berean, hurrengo urtean berriro parte hartzeko nahia pizten du. Festetan edozer egiteko gai ere bagara kuadrillan..., eta horrela aritu gara urteetan».

Film laburra prestatzeko lana kuadrilla osoaren ardura zela azaldu dute. «Astakeria bat bestearen atzetik botatzen genuen,

eta horrela irteten zen ideia». Ondoren gidoia egiten zuten, eta bakoitzak bere papera hartzen zuten; batzuek aktore lanak, besteek grabaketak eta edizioa.

Urteetan eman dituzte lanak fruituak, behin baino gehiagotan irabazi izan dutelako lehiaketa. Haien hitzetan, «pozik eta gustura» hartu izan dituzte sariak, baina horrek bere alde txarra ere baduela aitortu dute; beren buruari sartu izan dioten presioa. «Urtero lan hobea egin nahi izaten duzu, jendeari gustatzen jarraitzeko, eta horrek lan gehiago hartzera bultzatzen zaitu. Iaz, adibidez, bi aste igaro genituen filma egiten,


oso gogorra egin zitzaigun. Hori kontuan hartuta, eta plan desberdinak tarteko, aurten ez gara parte hartzera animatu», esan dute.

Koldarrak taldearen atzean dago, berriz, Koldo Campos. Hark lehen edizioan parte hartu zuen aurrenekoz, eta oraindik gogoan du orduko hartan bi taldek soilik eman zutela izena. Gaur egun parte hartzea «egonkortuta eta finkatuta» dagoela ikusita –urtero zortzi talde inguruk parte hartzen dute–, «pozik» agertu da: «Ikaragarria da lehiaketak zenbat pertsona biltzeko ahalmena duen ikustea. Bi talderekin hasi zen egitasmoa, eta orain plaza be-

tetzen du; oso polita da hori ikustea».

Koldarrak taldea ez da urtero animatu lehiaketan parte hartzera, baina Camposek dioenez, «oso ondo» pasatzen du ideia pentsatzen eta grabatzen. Berezi ki gogoan du Itsaso eta Haizea alabekin egindako filma saritu zuten urtea: «Oso pozgarria eta hunkigarria izan zen niretzat ep-paimahaiak alabekin egindako lan hura saritu izana».

Aurtengo lanaprest dute jada, eta hilaren 15ean erakutsiko dute: «Maxixatzen komunikabidearen ingurukoa da filma, eta sinplea baina polita gelditu da».



80/
URTEKO
URTEURRENA

JUARISTI
MILLING. BORING. THE EXPERTS.

**ONDO PASAU
ANDRAMAXEK!**



DOAN EZ DA DEBALDE



ZURE EKARPENA
BEHAR DUGU.
EGIN ZAITEZ
BAZKIDE.

bazkide@ukt.eus • 943-81 38 41



Egitaraua, egunez egun

Abuztuak 12, larunbata

11:00. Martittera Igoera, plaza-
tik abiatuta eta Jokin Ormae-
txea txirrindulari elkarteak an-
tolatuta. Egunean bertan eman
beharko da izena, 10:00etatik
10:45era, plazan.

Abuztuak 14, astelehena

12:00. Andremarien hasierako
txupinazoa, plazan. Musika
Bandak *Ondo pasau Andramai-
xek* joko du, eta gero, *Azkoitia*
abestuko dute Parrokiako Abes-
batzak eta Iraurgi abesbatzak.
Jarraian, Eltziegoko dultzaine-
roek *Kandido* joko dute.
12:30. Azkoitiko, Txantreako eta
Buztintxuriko erraldoien eta
buruhandien kalejira.
17:00. Haur parkea plazan.
19:30. *Rockalean* kale ikuskizu-
na.
19:50. Udal ordezkariak korp-
razioan joango dira parrokiara,
Txalkor txistulari taldeak lag-
gunduta, *Alkate soinuaren* doi-
nupean.
20:00. Herritarrek Ignacio Bus-
ca Sagastizabalen *Salbea* eta
Aita Nemesio Otañoren *Ave*
Maria abestuko dituzte parro-
kian, zazpi eta bost ahotsetara,
hurrenez hurren.
20:30. Danborrada.
23:00. Su Ta Gar taldearen kon-
zertua, herriko plazan.

23:00etatik 02:00etara. Alko-
holemia zerbitzua elizaren ata-
rian.

Abuztuak 15, asteartea

09:30. Eltziegoko dultzainero-
en kalejira.
10:00. Udal Musika Bandaren
eta Txalkor txistulari taldearen
kalejirak.
10:50. Udal ordezkariak kor-
porazioan joango dira parro-
kiara, Txalkor txistulari talde-
ak eta Musika Bandak lagun-
duta, *Alkate soinuaren* doi-
nupean.
11:00. Meza nagusia.
12:00. Erraldoien eta buruhan-
dien kalejira, Eltziegoko dul-
tzaineroekin.
13:00. Udal Musika Bandaren
eta Txalkor txistulari taldearen
kontzertua, Kontzejupean.
17:00. Pilota partidak, Gurea
pilotalekuan. Masters Caixa-
bank Txapelketako partida jo-
katuko dute Ezkurdiak eta Ma-
riezkurrena II.ak Altuna
III.aren eta Imazen kontra.
17:90. Pontx pailazoaren ikus-
kizuna, eliza atarian.
18:30. Freestyle Street Show
ikuskitzuna, Balda plazan.
19:30. Magia poteoa.
20:00. Azkoitiko gimnastika
erritmiko taldearen erakustal-
dia, Oteiza frontoietan.

20:00. Eltziegoko dultzainero-
en kalejira.
22:00. Film Laburren XI.
Lehiaketako lanen emanaldia
eta sari banaketa, plazan.
23:45. Neomak taldearen kon-
tzertua, plazan.

Apirilak 16, asteazkena

09:30. Eltziegoko dultzainero-
en kalejira.
10:00. Txalkor txistulari talde-
aren kalejira.
10:50. Udal ordezkarien kor-
porazioa parrokiara, Txalkor
txistulari taldeak lagunduta,
Alkate soinuaren doinupean.
11:00. Meza nagusia
12:00. Erraldoien eta buruhan-
dien kalejira.
12:15. Aurreksua, plazan.
13:00. Udal Musika Bandaren
eta Eltziegoko dultzaineroen
kontzertua, Kontzejupean.
17:00. Gazteentzako jolas dina-
mikoak, Balda plazan.
19:00. Benta Zaharreko Mutiko
Alaiak taldearen kalejira.
23:00. Suzko erroberak, Zara-
gozana etxearen eskutik.
23:30. Gozategiren kontzertua,
plazan.
23:00etatik 02:00etara. Dro-
gen kontsumoak eragiten di-
tuen arriskuak saihesteko eta
murrizteko zerbitzua egongo
da eliza atarian.



Abuztuak 17, osteguna

09:00etatik 10:00etara. Azkoitiko Kultur Elkartearen XL. Inazio Iriarte margo lehiaketarako zigilu jartzea, Portaleburu erakusketa aretoan. Lanak 14:00etatik 15:00etara bitartean jasoko dituzte toki berean.

09:30. Herriko trikitilarien eta dultzaineroen kalejira.

09:30. Blonda Txapelketa, Plazaberrin.

11:00. Herriko trikitilari gazteen kalejira.

12:00. Erraldoien eta buruhandien kalejira, Txalkor txistulari taldeak lagunduta.

12:00. Herrikirol jaialdia, plazan.

12:30. Jubilatuen meza, parrokian.

14:30. Jubilatuen bazkaria, Elkarguneko Herriko plaza aretoan. Bertan, aurten 90 urte betetzen dituzten herritarrak omenduko dituzte.

17:30. Simuladoreen parkea, plazan.

18:00. Bikote Gazteen Dantza Suelto Txapelketa, Baztartxo antzokian.

19:30. XL. Inazio Iriarte margo lehiaketaren sari banaketa, Portaleburun.

22:00. Etxeberritxo eta Ugaitz trikitilariekin erromeria, Balda plazan.

23:00. Suzko zezena, Balda plazan. Ondoren, erromeriak jarraituko du.

Abuztuak 18, ostirala

11:00. Atletismo saioa, Balda plazan. Ondoren, XX. Andramaixetako Milia eta XIX. Kale Atletismo Erakustaldia, Xeye atletismo taldeak antolatuta.

14:30. Herri bazkaria, plazan.

16:30. Brincaidera batukada, herriko kaleetan.

17:30. Apar festa eta ur jolasak, Balda plazan.

18:30. Zezenak, Plazaberrin.

20:00. Joselontxos txaranga, herrian zehar.

00:00. Suzko zezena, herriko plazan.

00:15. Perkulights batukada taldea, herriko kaleetan.

23:00etatik 02:00etara. Drogen kontsumoak eragiten dituen arriskuak saihesteko eta murrizteko eta genero erasoan aurkako babesgune zerbitzuak.

Abuztuak 19 eta 21

22:00. XIII. Diva-Sat idi dema saria, Gurea pilotalekuko probalekuan.



Iritzia

Ana Azkoitia

Azkoitiko alkatea

Momentu txiki horiek

Gehigarri hau eskuetan hartzen duzuegerako, festetako zapi urdinak kaxoietatik aterata izango dituzue seguruenik. Ez dakit urteko egunik onenetarikoan atarian gauden, baina ukazina da gure andramaixek ilusioa, festa gosea eta dibertitzeko irrika dakarzkigutela. Oinak dantzatzeko ditugula gogorarazten digute herriko jaiak.

Alkate gisa, nire lehenengo andramaixek dira hauek, eta nahiko nuke festa hauek eta datozenak herria eta herritarrek batzeko abagune izatea. Guztion artean jai herrikoiak, inklusiboak, benetakoak eta berdinzaleak izatea lortu behar dugu, guztiontzat errespetua eta askatasuna eskatuz eta bermatuz. Bestela, festak egun beltzak bihurtzen dira, eta inork ez du guztion festak zapuzteko eskubiderik.

Guk egun alaiak nahi ditugu. Urteak pasatu eta gogoratzen diren horietakoak. Izan ere, herriko jaiak, ezereen gaintik, momentuak dira. Lagun minarekin trukaturako hitzak, familiarekin egindako bazkaria, buruhandiren batek emandako maskurikada, frontoiko 22. tantoa... Momentu txikiak bizitzen dakienak lezio galanta du ikasia. Zer da ba bizitza momentu txikiz osaturiko soka luzea -edo ez hain luzea- izan ezean?

Momentu horien aurrean, andramaixetan, dibertsiorako ateak zabaltzen zaizkigu, urteko beste egunetan dantzarako tarterik izango ez bagenu bezala. Hala ere, festetan askotxo dira besteen gozamenarako lana egitea tokatzen zaienak, eta gutxien-gutxienez eskertzea merezi dute horiek. Txistulariak, Musika Bandako kideak, buruhandiak eta erraldoiak, ikuskizunak eskaintzen dituztenak, tabernariak eta txosnetan aritzen direnak, udaltzainak, larrialdietako zerbitzuetako taldeak eta abar. Lanik gabe, ez dago festarik.

Ondo pasau andramaixek! leloa geure egin behar dugu, gugatik eta ondokoengatik. Gozatu festez, gozatu momentu txikiez, horiei esker da-eta bizitza, bere gorabehera eta itzal guztiekin, hain polita; festetan are politagoa. A, eta jantzi balkoiak gorritz etxean dituzuen Azkoitiko banderekin!

ETXEBIZITZA FASE BERRIA

AZKOITIAN BIZITZEKO LEKU PAREGABEA



**ERAIKITAKO URBANIZAZIO PRIBATUAREKIN BAT EGINIK
KALITATEZKO ETXEBIZITZAK**

Informazioa eta salmenta
www.gruposorelor.com

943 85 02 22



JUIBERRI